# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

### 5347

*AGINDUA, 2023ko azaroaren 13koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuarena, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntza eta/edo lanpostua dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa behin betiko ebazten duena.*

Ikusi da Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntza eta/edo lanpostua dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzeko, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuaren 2023ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketa espezifikoaren ondorioz izapidetutako espedientea.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren VI. liburuko VIII. tituluan eta abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak onartutako Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamenduaren 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Behin betiko ebaztea Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko Kidegoetako eta Eskaletako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketa, Justizia, Lan eta Gizarte politiketako sailburuaren 2023ko uztailaren 31ko Aginduaren bidez deitutakoa, eranskinean adierazten den moduan.

Bigarren artikulua.– Lehiaketa honetan parte hartu eta destinorik lortu ez duten eskabideak iraungitzat jotzea. Beraz, hurrengo lekualdatze-lehiaketetan ez dira kontuan hartuko.

Hirugarren artikulua.– Lehiaketa honetan esleitu ez diren plazak bete gabe uztea.

Laugarren artikulua.– Destinoa lortu eta zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo senideak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek 2023ko abenduaren 11n utziko dute lanpostua, baldin eta ez badira itzultzen lehiaketa honetan aipatzen diren kidego edo eskaletako batera ere.

Bosgarren artikulua.– Funtzionarioak lanpostua utzi eta hurrengo hiru egun baliodunetan jabetuko dira lanpostuaz, baldin eta herriz aldatzen ez bada, edo hurrengo zortzi egun baliodunetan, autonomia-erkidegoz aldatzea badakar, eta hogei egun baliodunetan, autonomia-erkidegoz aldatzea badakar, Kanarietako Autonomia Erkidegoan, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoan, Ceutan eta Melillan izan ezik, horietan hilabetekoa izango baita. Plaza baten esleipendunak lanpostuaz jabetzearekin batera zerbitzu aktibora itzultzea lortzen badu, lanpostuaz jabetzeko epea

hogei egun baliodunekoa izango da, eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatu beharko da.

Lanpostuaz jabetzeko epeei dagokienez, lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari den funtzionarioa «funtzionarioaren herritzat» joko da zerbitzuak benetan ematen ari den herria.

Seigarren artikulua.– Esleitutako destinoei ezin zaie uko egin. Justizia Administrazioko Zuzendaritzak horien esleipenaren berri emango dio Justizia Ministerioari.

Zazpigarren artikulua.– Esleitutako plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek lanpostua utzi beharko dute titularra lanpostuaz jabetzearen aurreko egun baliodunean.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Aldi berean argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 13a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

ERANSKINA

LAGUNTZA JUDIZIALEKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatorrizko organoa | Jatorrizko Lanpostua/ Dotazioa | Antzinatasuna | Profila | Puntuazio osoa | Esleitutako Lanpostua/ Dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | María Elena Olmos Zulueta | ***5367** | Gueñesko Bake Epaitegia (Idazkaritza Elkartea) | 680015/17 | 56,8388805 | | 56,839 | 680001/34 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra | Balmaseda |
| 2 | César Mardones Presa | ***2234** | Elorrioko Bake Epaitegia | 680005/43 | 41,4944295 | | 41,494 | 680015/25 | Sopelanako Bake Epaitegia | Sopelana |
| 3 | Ana Belén Alonso Lozano | ***1820** | Justizia Auzitegi Nagusia-Administrazioarekiko Auzien Sala Bilbao | 605101/9 | 39,233321 | | 39,233 | 680002/9 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa-Zerbitzu Orokorren Atala | Getxo |
| 4 | Leire Pérez Merino | ***4511** | Beste autonomia-erkidego batekoa Nafarroa | 640001/5 | 2,7388815 | 8 | 10,739 | 680023/2 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra-KEBEZE Atala-Bestelakoak | Barakaldo |

## IZAPIDETZE PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatorrizko organoa | Jatorrizko Lanpostua/ Dotazioa | Antzinatasuna | Profila | Puntuazio osoa | Esleitutako Lanpostua/ Dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Miguel Ángel Larrañaga García | ***5332** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Donostia / San Sebastián | 580047/3 | 46,1055545 | 8 | 54,106 | 580046/20 | Arlo Zibileko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Merkataritzako 2 zk. | Donostia / San Sebastián |
| 2 | Francisco Javier Soto Labanda | ***8961** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra-Bestelako Zerbitzuen Atala Donostia / San Sebastián | 580058/8 | 45,2055435 | 8 | 53,206 | 580042/2 | Errenteriako Bake Epaitegia | Errenteria |
| 3 | María Nieves Ferradanes Rivero | ***9128** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra-Erregistroen eta Banaketen Atala Donostia / San Sebastián | 580057/3 | 36,266664 | 8 | 44,267 | Uko eginda | | |
| 4 | Manuela Martínez Esquinas | ***3638** | Arlo Zibileko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Erregistro Zibila Barakaldo | 580038/4 | 39,1833215 | | 39,183 | 580017/3 | Bulego Fiskala- Barakaldoko Lurralde Atala | Barakaldo |
| 5 | María Isabel Alcedo Moneo | ***2451** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra Azpeitia | 580005/1 | 37,744427 | | 37,744 | 580004/36 | Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP 1 zk. | Azpeitia |
| 6 | Antonio Dorribo Losada | ***6850** | Arabako Probintziako Bulego Fiskala | 580019/4 | 32,1833315 | | 32,183 | 580022/3 | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea | Vitoria-Gasteiz |
| 7 | María Mercedes García Martínez | ***5866** | MUGEJU - Ministerio | | 14,299997 | 8 | 22,3 | 580057/8 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra-Bestelako Zerbitzuen Atala | Donostia / San Sebastián |
| 8 | María Asunción Garoña Fernández | ***7798** | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa-Zerbitzu Orokorren Atala Tolosa | 580005/30 | 9,977758 | 8 | 17,978 | 580046/5 | Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP - Erreg. Zib. | Donostia / San Sebastián |
| 9 | José Manuel Román Hernández | ***4255** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Vitoria-Gasteiz | 580022/1 | 14,7833255 | | 14,783 | Esleitu gabe | | |
| 10 | María Ainhoa Odriozola Perez | ***3568** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Donostia / San Sebastián | 580047/5 | 14,1499985 | | 14,15 | 580047/11 | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Adingabeen Arloko Lantaldea | Donostia |
| 11 | Felicitas Reyes Ballesteros | ***3204** | Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP 3 zk.-Lan Arloa Eibar | 580001/21 | 5,711094 | | 5,7111 | 580005/2 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoa-Zerbitzu Orokorren Atala | Eibar |
| | Verónica Vivo Andreu | ***3550** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Barakaldo | 580039/5 | | | | Uko eginda | | |

## KUDEAKETA PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

| Zk. | Interesduna | IFZ | Jatorrizko organoa | Lanpostua/ Dotazioa | Aintzinatasuna | Profila | Puntuazioa | Zuzenbidea | Eskarmenetua | Puntuazio osoa | Esleitutako Lanpostua/ Dotazioa | Esleitutako lanpostuaren organoa | Udalerria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | José Antonio Molina Rodríguez | ***0976** | Bizkaiko Probintziako Bulego Fiskala | 480010/4 | 26,211109 | 6 | 32,211 | 10 | | 42,211109 | 480007/61 | Ugao-Miravallesko Bake Epaitegia (Idazkaritza Elkartea) | Ugao-Miraballes |
| 2 | Iratxe Corral López | ***1187** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Barakaldo | 480033/7 | 25,22221 | | 25,222 | | | 25,22221 | 480042/1 | Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra-KEBEZE Atala-Bestelakoak | Barakaldo |
| 3 | María Consuelo Chamorro Iglesias | ***8719** | Beste autonomia-erkidego batekoa Aragoi | | 25,0055455 | | 25,006 | | | 25,0055455 | Ez ditu baldintzak betetzen | | |
| 4 | María Estíbaliz López De Briñas Fuentes | ***2174** | Zigor Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP-Instrukzioko Lantaldea Vitoria-Gasteiz | 480021/1 | 24,1833315 | | 24,183 | | | 24,1833315 | 480016/1 | Arabako Probintziako Bulego Fiskala | Vitoria-Gasteiz |
| 5 | María Isabel Rodríguez Lucas | ***9933** | Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala-B atala (Instruk. eta Zigor Arloa) Vitoria-Gasteiz | 480027/18 | 14,588883 | | 14,589 | | | 14,588883 | 480040/1 | Adm. Auzien Kide Bakarreko Organo Mistoen ZULUP | Vitoria-Gasteiz |
| | Marta Irigoyen Arruabarrena | ***9188** | Lan Arloko Kide Bakarreko Organoen ZULUP Donostia / San Sebastián | 480048/2 | | | | | | | Uko eginda | | |
| | Nihad Ben Omar Akhlof | ***1457** | | | | | | | | | Baztertua, karrerakoa ez izateagatik | | |